# Iraultzako bataioak Uharte eta Hoztan

(Revolutionary baptisms in Uharte and Hozta)

Arbelbide, Xipri
3, Port Neuf Ateka. F-64100 Baiona

BIBLID [1136-6834 (2011), 37; 209-225]

Jaso: 2005.11.09
Onartu: 2011.03.04

---

*Frantziako Iraultzak apezak debekatu zituen. 10 bat urtez ez zen elizkizunik nihon izan. Elizak hetsiak ziren. Apezak ihesi Frantziatik kanpo, hemengoak hegoldean. Batzu hemen berean gorde ziren. Bataioak gordeka egin ziren, erregistrorik gabe; 1821an apezpikuak galdetu zuen bataio horien lekukoak ikusi eta erregistroen egitea. Hemen dauzkazue Uharte eta Hoztakoak. Hor ikusten da zein apezek egin zituzten eta zein etxetan.*

*Giltza-Hitzak: Frantziako Iraultza. Elizak hetsiak. Apezik ez. Bataioak gordezka. Erregistroak.*

*La Revolución Francesa prohibió el clero. Durante 10 años, aproximadamente, no se celebraron oficios religiosos en ninguna parte. Se cerraron las iglesias. Los curas huyeron de Francia y, los de aquí, marcharon al sur. Algunos se quedaron aquí, escondidos. Los bautizos se realizaban en secreto, sin ningún registro. En 1821, el obispo solicitó testigos de esos bautizos y su registro. Aquí tenéis los realizados en Uharte y en Hozta, así como los curas que los oficiaron y en qué casas.*

*Palabras Clave: Revolución Francesa. Iglesias cerradas. Ausencia de curas. Bautizos secretos. Registros.*

*La Révolution Française interdit le clergé. Pendant 10 ans, environ, aucun service religieux n'avait lieu. Les églises étaient fermées. Les prêtres fuyaient la France et les gens du pays partaient vers le sud. Certains sont restés ici, cachés. Les baptêmes avaient lieu en secret, sans aucune inscription. En 1821, l'évêque réclama des témoins de ces baptêmes et leur enregistrement. Nous trouvons ici ceux réalisés à Uharte et Hozta, le nom des prêtres et les maisons où ils ont été célébrés.*

*Mots-Clés : Révolution Française. Eglises fermées. Absence de curés. Baptêmes secrets. Registres.*

Manex Goihenetxek erran zidan behin baino gehiagotan gure herriko historia egiteko monografiak eskas zirela. Horren gatik naiz interesatzen han eta hemen gelditzen diren bataio erregistro zenbaiti. Frantziako Iraultza garaietan, hamar bat urte egon ziren apezik gabe gure herriak: apezak debekatuak ziren. Gehienak Hegoaldera joan ziren, handik noizean behinka agertzen zirela hemen. Zenbait hemen berean gelditu ziren. Batzu ala besteak nonbait gorderik. Nola ari ziren Iraultzaleekin kukulauka apez eta giristino?

Bataiatzen zuten, bainan erregistrorik ez zen. 1821an Baionako apezpikuak apezei eskatu zien bataio horien erregistroak egin zitzaten, lekukoak galdezkatuz, bataio bakoitzarentzat. Horrela jakiten dugu zein apez non zebilen eta non bataiatzen zuen, askotan etxeen izenekin. Erregistro horietarik bi aurkitu berri ditugu. Bat Uharteko herriko etxean, herri horretakoa. Bestea Belokeko beneditarretan, Hoztakoa

## 1. UHARTEKO BATAIOAK

Uharteko erregistro hasten da lerro hauekin kaligrafia ederrean idatziak.

> Registre des Baptêmes d'après les déclarations faites par les Pères, Mères, Parrains ou marraines des baptisés depuis l'année 1792 jusqu'à celle de 1808 inclusivement.`
>
> Rédigé à Uhart Cize
> dans le courant du premier trimestre 1822.

90 bataio badira. Mendiri bikarioak izenpetuak dira, bainan beste norbaitek idatziak, errient zenbaitek hain segur, kaligrafia ederrean idatziak baitira, Mendiriren idazkia oso arrunta delarik.

Gero «Supplément» deitu gehigarri bat, 91. bataiotik 107.rat. 105.tik harat orrialdeak erditik urratuak dira. Horra zergatik lerro batzu ez diren osoak eta bigarren gehigarriaren titulua ez daiteke osoan irakur. Iduriz Izpuran egin bataioak dira, Imbert apezak izenpetuak.

Bigarren gehigarria (108-119) parte Imbert Donibaneko erretorak izenpetua da.

Hirugaren gehigarria, iduriz Donibanen egina, Jean Duteich, Mendiry, Arnaud Karakotx eta Martinto apezek izenpetua. 120.tik 134 arte.

Orotara 134 bataioa.

Desherritu apezak itzuli zirelarik beren herrietara, ez zitezkeen berehala hasi erregistro egiten. Horren gatik da hau 1808 arte joaten. Gordeka egin bataioek


Vasconia. 37, 2011, 209-225


Registre des baptêmes [illegible] d'après les déclarations faites par les Pères, Mères, parrains ou marraines des baptisés depuis l'année 1792 jusqu'à celle 1808 inclusivement.
Rédigé à Uhart
dans le courant du premier trim. 1822.

Marie Ithurbide

20 Juin 1793

L'an mil huit cent vingt deux, et le [illegible] se sont présentés devant moi, Nicolas Ithurbide et Marie Mendiry, qui après avoir prêté serment, m'ont déclaré positivement que Marie Ithurbide, fille légitime de Nicolas Ithurbide, et de Marie Mendiry, a été baptisée par M. Idiart dans l'église d'Anhaux, le vingt juin mil sept cent quatre-vingt-treize, et qu'elle avait pour parrain et marraine, Bertrand Ithurbide, grand-père paternel, et Marie Mendiry, tante maternelle. [illegible]

Mendiry vicaire

Marie Etchart

10 avril 1794

L'an mil huit cent vingt deux, et le [illegible] s'est présentée devant moi, Dominique Michel, qui après avoir prêté serment, m'a déclaré positivement que Marie Etchart, fille légitime de Dominique Etchart, et de [illegible] Michel, a été baptisée par M. Idiart dans l'église d'Anhaux, le dix avril mil sept cent quatre-vingt-quatorze, et qu'elle avait pour parrain et marraine, [illegible] Michel oncle maternel, et Marie Etchart, tante [illegible]

| ZENB | URTEA | BATAIATUA | AITA | AMA | APEZA | HERRIA | TOKIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 39 | 1800.11.28 | Iriart Catherine | Jean | Indaburu  Mari | Ahatsako erretor | Luzaiden | |
| 40 | 1801.05.04 | Mediategi Mari | baxterta | Mediategi Dominique | Ahatsako erretor | Luzaiden | |
| 93 | 1795.06.16 | Buztingorri Gaxuxa | Pierre | Etxeberri Mari | Ahatsako erretor | Luzaiden | elizan |
| 100 | 1797.05.14 | Goihenetxe Dominique | Bertrand | Ager  Florine | Ahatsako erretor | Luzaiden | elizan |
| 7 | 1796.06.14 | Irigarai Jean | Jean | Iriart Graxiana | Ahatsako erretor | Luzaiden | kaperan |
| 12 | 1796.12.3 | Bortheiru Mari | Pierre | Ordoki Jeanna | Ahatsako erretor | Luzaiden | kaperan |
| 18 | 1797.12.25 | Miguelttho Jeanne | Bernard | Jauretxe Graxiana | Ahatsako erretor | Luzaiden | kaperan |
| 20 | 1798.01.24 | Loustau Dorothée | François | Perie Margueritte | Ahatsako erretor | | |
| 54 | 1803.08.05 | Gorriategi Mari | Pierre | Minduri Mari | Bereterbide | Uharten | elizan |
| 36 | 1800.08.21 | Piarretegi Jeanne | Jean | Bidegain Jeanne | Beroki | Donaixtin | |
| 99 | 1800.07.01 | Arrozagarai Mari | Jean | Larramendi Mari | Duteich | Uharten | elizan |
| 121 | 1800.08.19 | Bidegarai Jeanne Mari | | | Duteich Donibaneko | | |
| 122 | 1801.05.03 | Latsalde Mari | Mixel Latsalde | | Duteich Donibaneko | | |
| 123 | 1801.11.09 | | Perie Jacques | Ithurralde Marie | Duteich Donibaneko | | |
| 120 | 1800.06.03 | Goihenetxe Jeanne | | | Duteich/Donibaneko | | |
| 96 | 1798.10.12 | Oihararat Grazian | basterta | Eihararat Graxiana | Duteix | Donibanen | elizan |
| 97 | 1800.05.20 | Gainekoetxe Catherine | Jean | Karrikaburu Mari | Duteix | Donibanen | elizan |
| 43 | 1801.10.15 | Etxebarne Jacques | Sauveur | Perie Mari | Duteix | Donibanen | elizan |
| 44 | 1801.11.08 | Irigarai Caterine | Pierre | Etxarren Mari | Duteix | Donibanen | elizan |
| 49 | 1802.07.28 | Jauregiberri Pierre | Jean | Loholaberri Jeanne | Duteix | Donibanen | elizan |
| 51 | 1802.10.11 | Etxarren Jean | Arnaud | Irigaray Magdeleine | Duteix | Donibanen | elizan |
| 4 | 1795.05.24 | Pierreteguy Jeronyme | Jean | Bidegain Jeanne | Eiherabide | Donaixtin | |
| 130 | 1795.05.24 | Piarretegi Jeronim | Jean | Bidegain Jeanne | Eiherabide | Donaixtin | |
| 22 | 1798.04.02 | Piarretegi Jean | Jean | Bidegain Jeanne | Eiherabide | Donaixtin | |
| 6 | 1796.04.15 | Apezetxe Jean | Raymond | Argarai Graxiana | española | Luzaiden | kaperan |
| 133 | 1796.04.15 | Apezetxe Jean | Raymond | Argarai Graxiana | española | Luzaiden | kaperan |
| 9 | 1796.09.23 | Idiart Dominique | Jean | Indaburua  Mari | española | Luzaiden | kaperan |
| 11 | 1796.11.19 | Etxart Graxiana | Jean | Agothe Graxiana | española | Luzaiden | kaperan |
| 103 | 1797.12.26 | Enuxante Mari | Santso | Bidegain Mari | española | Luzaiden | elizan |
| 104 | “1797;07;02” | Etxeberri Jenne | Bernard | Naguilla Jeanne | española | Luzaiden | elizan |

| ZENB | URTEA | BATAIATUA | AITA | AMA | APEZA | HERRIA | TOKIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 32 | 1800.02.16 | Apezetxe Graxiana | Raymond | Argarai Graxiana | española | Luzaiden | |
| 34 | 1800.03.08 | Ithurralde Jeanne | Martin | Etxeberri Catherine | española | Luzaiden | |
| 35 | 1800.07.14 | Etxoinborda Graxiana | Bernard | Bigne Jeanne | española | Luzaiden | |
| 38 | 1800.10.02 | Jauregiberri Jean | Jan Pierre/Agerria | Apezetxe Jean | española | Luzaiden | |
| 47 | 1802.06.14 | Etxoinborda Graxiana | Bernard | Bigné Jeanne | española | Luzaiden | |
| 98 | 1800.10.02 | Bidart Dominique | Pierre | Kurutxet jean | Hargindegi | Landibarren | Doneztebe eliz |
| 1 | 1793.06.20 | Ithurbide Mari | Nicolas | Minduri Mari | Idiart | Anhauzen | Elizan |
| 2 | 1794.04.10 | Etxart Mari | Domnique | Mitxel Dominique | Idiart | Anhauzen | |
| 37 | 1800.09.14 | Etxeberri Pierre | Bernard(Zihigoihen | Jauregiberri Mari | Idiart | Anhauzen | |
| 50 | 1802.08.01 | Lohitegi Catherine | Pierre | Intxauzpe Magdeleine | Idiart | Anhauzen | |
| 92 | 1794.05.16 | Etxepare Mari | Jean | Karrikaburu Mari | Idiart | Anhauzen | elizan |
| 8 | 1796.06.16 | Goihenetxe Jean | Pierre | Intxauzpe Madeleine | Idiart | Anhauzen | Elizan |
| 13 | 1797.05.02 | Perie Catherine | Jacques | Iturralde Mari | Idiart | Anhauzen | * |
| 14 | 1797.07.23 | Idiart Madeleine | Baptiste | Jeanne Indaburu | Idiart | Anhauzen | Elizan |
| 15 | 1797.11.01 | Nabarlatz Dominique | Jean | Castillon Graxiana | Idiart | Anhauzen | * |
| 16 | 1797.11.15 | Etxart Jeanne | Domnique | Mitxel Dominique | Idiart | Anhauzen | |
| 17 | 1797.11.19 | Goihenetxe Jeanne | Domnique | Mixelena Dominique | Idiart | Anhauzen | * |
| 18 | 1797.12.27 | Migueltho Pierre Bernard | Bernard | Jaureito Gracianne | Ahatseko erretora | Luzaiden | Kaperan |
| 19 | 1798.01.01 | Barrandegi Jean | Jean | Jauregiberri Mari | Idiart | Anhauzen | * |
| 21 | 1798.03.11 | Ithurralde Jeanne | Martin | Mediategi Catherine | Idiart | Anhauzen | |
| 95 | 1798.10.11 | Gañekoetxe Jeronim | Jean | Karrikaburu Mari | Idiart | Anhauzen | elizan |
| 33 | 1800.02.16 | Lohitegi Pierre | Pierre | Intxauzpe Magdeleine | Idiart | Anhauzen | |
| 52 | 1803.01.05 | Irigarai Arnaud | Pierre | Etxarren Mari | Idiart | Anhauzen | elizan |
| 48 | 1802.06.15 | Ithurralde pierre | Ithurralde | Kurutxet Mari | Idiart | Lasan | elizan |
| 94 | 1795.06.14 | Etxart Pierre | Baptiste | Salies Graxiana | Idiart | Lasan | elizan |
| 10 | 1796.10.25 | Etxoinborda Jean | Bernard | Bigné Jeanne | Idiart | Lasan | elizan |
| 53 | 1803.07.17 | Goihenetxe Catherine | Pierre | Intxauzpe Magdeleine | Idiart | Lasan | elizan |
| 126 | 1795. | Counts Jean | Domi | Kurutxet | Idiart erretor | | |
| 117 | 1802.02.02 | Lako Jeanne | etxetiar | Flamenco Mari | Imbert erretor/Don | | |
| 119 | 1802.04.17 | Verduzan Antoine | harakina | Catherine | Imbert erretor/Don | | |

| ZENB | URTEA | BATAIATUA | AITA | AMA | APEZA | HERRIA | TOKIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 118 | 1802.04.18 | Bidondo Jean baptiste | Bidondo Guilhaume | | Imbert erretor/Don | | |
| 112 | | | Mixel Bentta | Harizpurukoa | Imbert erretor/Don | | |
| 113 | | | Bidart Bernard | | Imbert erretor/Don | | |
| 114 | | | Aspar Gaston | Agerrekoa | Imbert erretor/Don | | |
| 115 | | | Xen Martin | | Imbert erretor/Don | | |
| 116 | | | ... Jean | | Imbert erretor/Don | | |
| 3 | 1795.03.19 | Etxepare Jean | Jean | Iriart Mari | Iriart | Anhauzen | Elizan |
| 129 | 1795.03.19 | Etxepare Jean | Jean | Iriart Mari | Iriart | Anhauzen | elizan |
| 31 | 1800.01... | Thambot | Bernat eiherazain | Kurutxet Mari | Iriart | Anhauzen | |
| 45 | 1802.04.14 | Bidart Margueritte | Bernard | Kurutxet Mari | Martinto | Uharten | elizan |
| 46 | 1802.05.14 | Marchot Mari | Goihenetxe pierre | Martxot Mari | Martinto | Uharten | elizan |
| 55 | 1804.02.16 | Bidart Mari | Bernard | Kurutxet Mari | Martinto | Uharten | elizan |
| 56 | 1804.04.01 | Etxoinborda Jean | Bernard | Bigné Jeanne | Martinto | Uharten | elizan |
| 57 | 1804.06.01 | Etxebarne Jean Pierre | Laurent | Perie Mari | Martinto | Uharten | elizan |
| 58 | 1804.06.15 | Etxeberri Catherine | baxterta | Etxeberri Catherine | Martinto | Uharten | elizan |
| 59 | 1804.07.05 | Ezponda Jean | Dominique | Uhaldegarai mari | Martinto | Uharten | elizan |
| 60 | 1804.10.02 | Jauregiberri Martin | Jean | Loholaberri Jeanne | Martinto | Uharten | elizan |
| 61 | 1805.03.22 | Migelttho Pierre | Bernard | Jaureittho Graxiana | Martinto | Uharten | elizan |
| 62 | 1805.05.07 | Ithurbide Catherine | Nicolas | Minduri Mari | Martinto | Uharten | elizan |
| 63 | 1805.07.15 | Goihenetxe Graxiana | Guilhaume | Xarreta mari | Martinto | Uharten | elizan |
| 64 | 1805.08.16 | Ezpelet Jean | Pierre | Iribarne Jean | Martinto | Uharten | elizan |
| 65 | 1805.09.17 | Bentaberri Jeanne | Bernard | Bidegain Graxiana | Martinto | Uharten | elizan |
| 66 | 1805.09.18 | Gezanburu Mari | Jean | Ezkoz Catherine | Martinto | Uharten | elizan |
| 67 | 1805.12.15 | Perie Jean Baptiste | Jacques | Irigoien Mari | Martinto | Uharten | elizan |
| 68 | 1805.12.26 | Bidande Charles | Pierre | Osthour Mari | Martinto | Uharten | elizan |
| 70 | 1806.01.19 | Etxemendi Mari | M... | Mañet Catherine | Martinto | Uharten | elizan |
| 69 | 1806.04.07 | Jauregiberri Pierre | Jean | Loholaberri Jeanne | Martinto | Uharten | elizan |
| 73 | 1806.06.27 | Perie Jean Felix | Jacques | Irigoien Mari | Martinto | Uharten | elizan |
| 71 | 1806.08.04 | Gorriategi Mari | Pierre | Minduri Mari | Martinto | Uharten | elizan |
| 72 | 1806.08.12 | Etxebarne Gaston | Sauveur | Perie Mari | Martinto | Uharten | elizan |

| ZENB | URTEA | BATAIATUA | AITA | AMA | APEZA | HERRIA | TOKI |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 74 | 1806.10.30 | Bentaberri Mari | Bernard | Bartzelona Gaxuxa | Martinto | Uharten | elizan |
| 75 | 1807.03.15 | Ithurralde Martin | Martin | Kurutxet Mari | Martinto | Uharten | elizan |
| 76 | 1807.04.19 | Irigarai Mari | Pierre | Etxart Mari | Martinto | Uharten | elizan |
| 77 | 1807.04.20 | Irigoien Françoise | Krisostome | Xilotegi Mari | Martinto | Uharten | elizan |
| 78 | 1807.04.30 | Ezponda Jean | Dominique | Uhaldegarai Mari | Martinto | Uharten | elizan |
| 79 | 1807.08.31 | Etxeberri Mari | Bertrand | Jauregiberri Catherine | Martinto | Uharten | elizan |
| 80 | 1807.12.05 | Ezpelet Graxiana | Pierre | Iribarne Jeanne | Martinto | Uharten | elizan |
| 81 | 1808.01.24 | Perie Antoine Timote | Jacques | Irigoien Mari | Martinto | Uharten | elizan |
| 82 | 1808.02.07 | Jauregiberri Catherine | Jean | Loholaberri Jeanne | Martinto | Uharten | elizan |
| 83 | 1808.04.25 | Iriart Jean | Jean | Mitxel Mari | Martinto | Uharten | elizan |
| 84 | 1808.05.20 | Loustau Marguerite | baxterta | Loustau Mari | Martinto | Uharten | elizan |
| 85 | 1808.05.28 | Elizetxe Bernard | Dominique | Mitxel Jeanne | Martinto | Uharten | elizan |
| 86 | 1808.06.16 | Ithurralde Dominique | Martin | Kurutxet Mari | Martinto | Uharten | elizan |
| 87 | 1808.07.30 | Etxebarne Mari | Sauveur | Perie Mari | Martinto | Uharten | elizan |
| 88 | 1808.08.20 | Nabarlatz Bernard | baxterta | Nabarlatz Graxiana | Martinto | Uharten | elizan |
| 89 | 1808.12.25 | Goihenetxe Graxiana | Guilhaume | Xareta Mari | Martinto | Uharten | Elizan |
| 90 | 1808.12.26 | Etxemendi Mixel | Michel | Magne Catherine | Martinto | Uharten | elizan |
| 125 | 1808.10.21 |  | Carakotxe Marie | Graxiana | Martinto |  |  |
| 128 | 18...05.01 |  |  | Intzauzpe Magdeleine | Martinto |  |  |
| 124 | 18...03.18 | Lohitegoy Caracotche | Carakotxe martin | Graxiana | Martinto |  |  |
| 101 | 1797.02.14 | Arrozagarai Pierre | Jean | Larramendi Mari | Olherri | Luzaiden |  |
| 102 | 1799.07.03 | Arrozagarai Mari | Jean | Larramendi Mari | Olherri | Luzaiden |  |
| 91 | 1793.01.22 | Indart Jeanne | Martin | Mainthenu Catherine | Petotegi | Uharten | elizan |
| 5 | 1795.06.16 | Nabarlatz Dominique | Jean | Castillon Graxiana | Petotegi | Uharten | Elizan |
| 131 | 1795.06.16 | Nabarlatz Dominique | Jean | Castillon Graxiana | Petotegi | Uharten | elizan |
| 29 |  |  | Iriart |  |  | Anhauzen |  |
| 105 | 1797.05.17 | Loustau Jean Baptiste |  |  |  | Luzaiden |  |
| 107 | 1802... | Zubialde Magdeleine |  |  |  | Luzaiden | elizan |
| 30 | ...07.01 | Iriart Charles |  | Mari Larragnet |  | Luzaiden |  |
| 106 | 1797.06.10 | Etcharren Jean |  |  |  |  |  |

| ZENB | URTEA | BATAIATUA | AITA | AMA | APEZA | HERRIA | TOKIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 25 | 1798.06.29 | Ithurbide Bernard | | | | | |
| 26 | 1798.07.01 | | | | | | |
| 27 | 1798.08.03 | | | | | | |
| 127 | 179?.07.03 | | | | | | |
| 108 | 1801.02.08 | Combret Graxiana | | | | | |
| 109 | 1801.03.11 | Espelet Dominique | | | | | |
| 110 | 1801.03.25 | Ezponda Graxiana | | | | | |
| 111 | 1801.03.25 | Iribarne Jean | | | | | |
| 41 | 1801.05.04 | Thamburu Jean | Bernard | Kurutxet Mari | | | |
| 42 | 1801.08.01 | Uhalde Mari | baxterta | | | | |
| 23 | 1800.01 | | | | | | |
| 24 | 179?.04.16 | | | | | | |
| 28 | | ...... Perie | | | | | |
| 134 | | Irigarai Jean | Jean | Iriart Gracianne | | | |

baigaituzte interesatzen 1802 urtearen ondarrean gelditu gara, hortik harat bataio guziak elizetan eginak eta egoera normalera itzuliak baitzen denetan.

Hona laugarren bataioa, Jeronyme Pierresteguy, 1795an maiatzeko 24an bataiatuaren ageria nola idatzia den.

> L'an mil huit cent vingt deux, et le trois mars, s'est présenté devant moi, Jeanne Bidegain, qui après avoir prêté serment m'a déclaré savoir positivement que Jeronyme Pierreteguy, fille légitime de Jean Pierreteguy et d'elle, Jeanne Bidegain été baptisée par M. Eyherabide à St Just, le vingt quatre mai mil sept cent quatre vingt quinze, et qu'elle avait pour parrain et marraine Jean Bidegain grand père maternel et Jéronyme Bidegain tante maternelle. D'après le témoignage ci-dessus et la connaissance que j'ai du caractère et de la probité du témoin, ainsi que des autres circonstances, j'ai jugé en ma conscience que le baptême dont il s'agit doit être considéré comme certain et valide ; en foi de quoi j'ai signé et non le témoin pour ne le savoir requis de ce faire par moi.

Ageri honi esker badakigu nor zen bataiatua, noizkoa den bataioa, nor diren aita-amak eta aitatxi-amatxiak, zein zen apez bataiatzalea, eta zein herritan bataiatu duen. Zoritxarrez ez dugu beste erregistro batzutan agertzen dena, zein etxetan bataiatua izan den eta zer adinetan.

**2**

Hona zein diren hor agertzen diren apezak.

*Beroki* batek Uharteko haur bat bataiatu zuen Donaixtin. Hoztan aipatuko dugu apez hau.

*Duteix* J. B. (Duteich ere idazten da) Donibanen sortua, Tarbesen apeztua (1754.05), gazteluko apez, 1814an hila, otsaileko 7an[1]. 11 bataio egin ditu denak elizan, nahiz lehena 1898ko uztailekoa zen. Bazterrak lasaituak zitezkeela Donibanen eta eliza ordukotzat idekia erran nahi duke horrek.

*Eiherabide* Azkaratekoa zen sortzez eta Jutsiko erretora. Amikuze-Oztibarreko bikario nagusitzat hartua zuen Akizeko apezpikuak, Oztibar, Amikuze eta Bidaxune aldea, Akizeko diozesakoak baitziren. Baionako katedraleko erretor izendatua izanen zen Iraultzaren ondotik, kargu horretan hiltzeko 1818an[2].

Hariztoiek ez du erraten bataioak gordeka egin dituenik, bainan Uharteko bi haur bataiatu ditu Donaixtin, Donaixti bere parropian, biak familia berekoak. Familia horrekin harreman bereziak ba ote zituen? Jeronim bi aldiz ekarria da, 4

1. Haristoy, II T; 195 or.
2. Haristoy, II T; 146.or.

eta 130 zenbakietan, biak Mendiry-k izenpetuak, bat erregistro nagusian, bestea bigarren gehigarrian. Bigarrena egin duelarik ahantzia zukeen lehena egina zuela.

*Etxeberri* bat: Ahatsako erretor emana da hemen, eta badakigu Ahatsako erretora Etxeberri zela. Zortzi Uhartiar bataiatu ditu Luzaideko elizan. Ez zen Luzaiden egon den Domingo Etxeberri Zaro Iturbideko semea; nahiz, biek Luzaiden bataiatu duten. Hiru aldiz emana da «kapera» eta ez eliza. Luzaideko eliza erre zuten soldado Frantsesek 1792an, herriko beste etxe guziak bezala. Kapera bat eraiki zuten behingotz eliza berria egin arte.

*Hargindegi* batek haur bat bataiatu du Landibarreko Donestebe elizan, 1800an. Haristoyen arabera Muñolosekoa zen, apez zinegilea eta Azkonbegiko Jondoni Xipirine eta Donteztebeko elizetan ari zen Pierre Harispe Bidarraitarra, beste zin egile batekin[3]. Dominique Bidarten aitamak Uhartetik Landibarrera joan ziren beraz beren haurra bataiatzeko. Familia honek ez zekikeen Duteich-ek bataiatzen zuela hor berean Donibaneko elizan.

*Imbert* Donibaneko erretor berriak egin ditu zortzi bataioa, bainan 1802an eta ofiziali erretor zen. Ez dute beraz interesik Iraultzari doakionaz.

*Pierre Iriart* Anhauzeko erretora, apez zinegilea zen eta apezgoa utzi zuen (1794.06.25.) Haristoy-en arabera[4]. Gure hau, beste Iriart bat (edo Idiart, biak badira) ote liteke zeren eta 1803ko uztailean egin du bere 24 bataioetarik azkena. Nolaz bataiatuko zuen 1803an, apezgoa utzia bazuen?

Menturaz Lasan bikario zen Pierre Iriart da bataiatzalea hau. Bizkitartean, 20 Anhauzen bataituak dira eta 4 bakarrik Lasan. Lasakoa baldin bazen nolaz egin du erregistroa Anhauzen? Eta bereziki 2 elizetan ari izan da, eta nekez ikusten dugu gordean bizi zen apez bat horrela sistimatikoki elizan bataiatzen denen jakinean. Gainera 1794tik harat apez zin egileak ere debekatuak ziren.

Gainera bere erregistroa bazuen, Iraultza garaietan ezagutzen dugun bakarra: Uhartekoak, behin baino gehiagotan Anhauzeko erregistrora igortzen du bataituaren xehetasunik eman gabe. Hona hamabostgarrena: « Dominique Nabarlatz fils légitime de Jean et de Gracianne Castillon (son baptistaire se trouve dans le registre d'Anhosse) ». Beste batzutan ematen du: « le registre de M Idiart ». Ez dakigu non den Anhauzko erregistro hau.

*Martinto* batek 1800tik harat Uharten eginek ere ez dute interesik, denak elizan eginak baititu. Iraultza ondotikako lehen erretora da Uharten[5].

3. Haristoy, II. T; 332 or.
4. Harsitoy, II. T; 146 or.
5. Haristoy, II. T; 276 or.

*Petotegi-k* bi bataio egin ditu Uharteko elizan 1793 eta 1795an. Lehena bi aldiz ekarria da 5 eta 131 zenbaakiekin. Urte horietan elizan aritzeko, zinegilea zitekeen. Haristoyen arabera apezgoa utzia zuen 1794an. Ondoko urtean bataiatu duenaz gain, Haristoyen iturria ez zen ona.

Bestalde 22 haur *Luzaiden* bataituak izan dira: 7 Ahatsako erretorak (Etxeberri deitzen zen), 2 Olherri apezak, (bi anai arreba), beste 10entzat, apeza «española» ekarria da. Luzaideko bataio horietan badira lau 1800koak eta bi 1802koak: egoera ez zitekeen osoki normalisatua Garazi aldean, Luzaidera joan baziren hemen berean apezak bazirelarik.

Ohartzen gara Domingo Etxeberrik Luzaiden bataiatuekin egin erregistroan dauden 11 haurretarik bat baizik ez dela ekarria hemen, Maria Bortheiru (12.): Horrek erakusten du Iraultza garaiko, Uharteko bataio guziak ez direla hemen. Bestalde Etxeberri Luzaiden zelarik (1796-1798) egin ditu 3 bataio Ahatsako erretorak, 5 apez español batek eta bat Olherrik eta horiek ez dira ekarriak Domingo Etxeberriren erregistroan. Bi kasutan bederen, egun beretan beste bataio batzu egin ditu Etxeberriek ere. Nolaz ez ditu ekarri hauek bere erregistroan?

Azken ohar bat: 4 bataioa bi aldiz ekarriak dira, Jean Etxepare (3. eta 129.). Piarreteguy Jeronyma (4. eta 130.), Nabarlatz Dominique (5. eta 131.) eta Raymond Apezetxe (6. eta 106.).

Bi hitzez errateko, ikusten dugu Uharteko aita ama familiakoak bekan joan direla urrun (Donaixti eta Landibarrerat): (3). Gehienetan hurbilago gelditu dira: Luzaiden (22), Anhauzen (22) nahiz apez zinegilea zen. Lasan 3, Donibanen 6, iduriz hemen giroa normaldua zelarik.

## 3. HOZTAKO BATAIOAK

Erregistro hau hasten da lerro hauekin:

> Registre des enquêtes de l'Eglise de St Pierre, paroisse de Hosta d'après le mandement de Mgr l'Evêque de Bayonne, conformément à l'article XIV, an 1821.

71 bataio dira, horietarik 61 *Orbaiz Rethore (*= erretorea) izenpetzen duen apez batek bilduak eta bere idazteko maneratik ageri da hegoaldekoa dela: « r » hango moldean idazten du, Uhartekoaren gisa apezaz beste norbaitek egina da. Nolaz zen Hoztako erretor hegoaldeko apez hau ez dezakegu erran.

Erregistroaren erdian 8 orrialde sartu ditu *Hiriart*, Orbaizen ondotik izendatu erretorak, lau bataiorekin eta azken bataio baten berri *Daguerre*, 1828an Hoztara izendatuak. Azken orrialdean beste bat, hau ere Hiriart izenpetua.

Hona ageri baten testoa.

> L'an mil sept cent quatre vingt treize et le 24 octobre a été baptisé par feu Mr Beroquy prêtre en cachait chez Chourrout de Hosta Marie Carricaburu fille légitime d'Arnaud Carricaburu et de Catherine Urruty son épouse, maîtres d'Astoquichar de hosta. le parrain a été Jean Urruty grand père marraine marie Bidegain de St Just. déposé par le parrain qui a déclaré ne savoir signer de ce faire requis par moi.

Iriartek xehetasun gehiago ematen du:

> Ce dimanche vingt et unième du moi de Novembre, l'an mil huit cent vingt quatre, Arnauld Aguerre, laboureur âgé de soixante ans, métayer de Chitchoa du lieu de cibitz, et Pierre Coré âgé de vingt huit ans, tisserand, maître d'Ithurbidia, obligés par serment de dire vérité, séparément interrogés, ont déclaré à moi prêtre soussigné, qu'Arnauld Churruta, fils légitime de Jean Churruta et de la feue Marie Aldabé, laboureurs, maîtres et maîtresse d'Irbarneborda de cette paroisse, fût baptisé par feu M. Salaberry, desservant de cette commune, qu'il accomplira vingt ans vers la fin du mois prochain, que l'un étant parrain et l'autre son compagnon, ils furent témoins oculaires du baptême du sus dit Arnauld. D'après le témoignage ci dessus, et la connaissance que j'ai du caractère et de la probité des témoins, ainsi que des autres circonstances, je juge dans ma conscience que le baptême dont il s'agit doit être considéré comme certain et valide, en foi de quoi, le dernier témoin a signé avec moi, et on l'autre pour ne savoir le faire.

Ageri hontan ikusten dugu nola egiten zuten. Lekukoak bederazka galdestatzen, zin egin ondoan. Biek ematen digute bataioa egin duen apezaren izena bainan Orbaizek jakin arazten digu bestalde zein etxetan egina izan den bataio hori. Ez da haurraren adinik aipu. Aita-amak bai eta aitatxi-amatxiak zein etxetakoak diren eta zer ofizio duten emana da.

14 apez agertzen dira hemen:

*Ametzaga*-k bataio bat egin du Izura Bidagainberrian. Ez dakigu nor zen apez hau.

*Arginzotek* bat. Hau ere ez dakigu nor den.

*Berokik* 32. Ibar-Hoztako bikario zen Iraultza hasi zelarik. Xurruta etxean egin ditu 21 bataio, 6 Aroztegian, bat Nekolan eta beste laurentzat non zen ez da errana. 24 aldiz idatzia da « prêtre en cachait », gordeka ari zela erakusten baitu horrek garbiki.

*Bidarten* izenik ez da, bainan bataio bat egin baitu Ostankoako erretorak, hau zen erretor herri horretan. Ostankoan egin zen bataio hori, herri horretan bizi zirelakotz.

*Bordak* 17, Ibar-Hoztako erretor zen eta Iraultza ondoan Orbaizek Borde deitzen du, (salbu aldi bat: Borda) izena frantsestuz. Imigratuaren konplexua? Dona-

paleura izendatua izan zen Iraultza ondoan. Hoztako erretor izendatua izan zen 1800an. Beraz honen bataioak ez dira gordezka eginikakoak.

*Casenavek* 2. Mendibeko erretorra zen erregistroaren arabera, bainan nahiz Hozta aipatzean gauza bera erraten duen Hariztoyek[6] Mendibe aipatzean, Jean Gamarteguy ematen du horgo erretor[7]. Mendiben ala Hoztan egin zituen bi bataio horiek ez zaiku errana, bainan nola bi haurretarik bat Xurrutakoa zen, iduritzen zaiku Hoztara jin zela zeren eta etxe horretan eginak izan dira beste 21 bataio. Xurrutek ez zuen Mendibera joateko arrazoinik, bere etxean egiten baziren bataioak. Bainan deus ez da segurrik zeren eta Xurrut etxean egina bezala ekarri lehen bataioa 1793koa da, urriko 24an.

*Erramun Etxebertz* Dona Paleuko erretorak[8] bat. Iholdin sortua 1744an, bazuen 13-14 urte Donapaleuko erretor zela Iraultza hasi zelarik. Haristoyek dio, hain segur zin egin zuela eta Iraultza ondoan, damuturik Donapaleura itzuli zela. Ondoko urtean Larzabalen zen Bordarekin trukaturik parropia. Zin egin zuen ala ez, ez dezakegu erran Hoztako bataiotik, ez baitugu bataioaren urterik, ez tokirik.

*Hiriart* edo d'Iriart edo Iriart-ek 5 bataio egin ditu: bat Suhuskuneko elizan, 1793ko. Elizan egin duenaz gain, oraino egin zitekeen herri honetan, bainan Hoztakoak lekuak hustuak zituen jadanik, familia bat Suhuskunera joaten denaz geroz. Beste lauentzat ez da errana non egin dituen, bainan aintzineko urtekoak dira eta beraz eliza zenbaitetan egin dituzke. Apez hau Irisartarra zen[9]. Erregistroak Suhuskunekoa dela dio bainan 1792an Saubat Mendiboure zen erretora. Iraultza ondotik da Iriart horrara izendatua izan eta erregistro hau Iraultza ondoan egina da.

*Irolle* edo segurrago *Irola* batek 8 bataio egin ditu: Ahatsa Agerrean bat, lau Sarrasketa Baratxartean eta bat Hoztako elizan, 1797ko uztailean: harritzeko liteke. Beste bientzat ez da emana non eginak izan diren.

*Jaurixuri* edo *Ondikola*-k bataio bat egin baitu Xurrutan, Hariztoiek aipatzen duen Irulegiko Ondicolle ditake, zeren eta, beti Haristoyen arabera, Orreagan bataiatzen zuen, Luzaiden ari zen Domingo Etxeberri, Baionako bikario nagusiaren baimenarekin[10]. Bataio hau ez duke Orreagan egin bainan Luzaiden, Luzaiden baitzen orduan erregistroaren arabera.

*Laurendi Lartirigoinek* Buzunaritz Baratxartean egin du bataio bat. Erregistroak erraten du Iholdikoa zela. Haristoyek Aintzileko bikario ekartzen du[11]. Haur

6. Haristoy, II. T. 335.
7. Haristoy, II. T. 265 or.
8. Haristoy, II.T. 361-362 or.
9. Haristoy, II. T. 334 or.
10. Haristoy, II.T. 432 or.
11. Haristoy, II T. 286 eta 291 or.

hau Eiheralarren sortua zen eta bi urtetan bataiatua izan dela errana zaiku. Bi urte egon dira beraz apez bat non aurki zezaketen jakin gabe. Beste askotan egoera bera ezagutu dute.

*Salaberri batek* 5 bataio egin zituen 1803tik harat, bainan hau apezpikuak izendatua zen herri horretara 1803an eta egora normalizatua zen ordukotz.

Azkenik aipatu behar ditugu hegoaldko bi apez. *Ithurri* Aurrietako erretora eta *Miguel* Luzaideko erretora. Bost bataio egin dituzte. Harri ninteke Hoztara etorri balire. Segurrago, Hoztako familia horiek dira joan Luzaide eta Aurrietara, Etxeberri Zaroar apezak egin Luzaideko erregistro batetan ekarriak diren beste 221 haiek bezala. 45. bataioko Graxiana Ager-en gaziata eta gazama, biak Aurrietakoak dira. Zein da Aurrieta herri hori? Arrieta? Jaurrieta?

Haristoyek baitio apez horiek « prêtres catholiques fugitifs »[12] deitzen diztuztela Hoztako erregistroek ez dugu horrelakorik ikusi. Ez eta Bassart Uhartehiriko erretora, Cinco, Bonart eta Eiherabiden izenik. Eta ez zaiku iduri beste erregistrorik izan ditekeenik. Hoztarren edo apez zenbaiten erran merranetarik atera du hori Hariztoiek.

Sei etxetan egin dira bataio horiek: 21 Xurrutan, 5 Aroztegian, eta bat Nekolan Hoztari doakionaz. 6 Buzunaritz-Baratzartean eta bedera Ahatsa Agerrean eta Izura Bidagainberrian.

Bi erregistroen artean, gordeka ari iza diren dotzena bat apezen izenak baditugu (Hoztan: Ametzaga, Argintzot, Beroki, Cazenave, Irola eta Lartirigoien. Uharten: Duteix, Eiherabide, Etxeberri, Hargindegi, Olherri, Idiart (ala Iriart) eta Petotegi. Zin egileak aldiz, iduriz bederen: Petotegi, Hargindegi eta Idiart.

Uharteko haurretan gutienez 71 herritik kanpo joan dira beren haurra bataiatzeko. Hoztan aldiz 13 nonbait han, kondutan hartuz ez dakigula beti non egin diren bataioak.

12. Haristoy, II T. 335 or.

| ZEN | URTEA | BATAIATUA | AITA | AMA | ETXEA | APEZA | NON |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 42 | 1801/ | Jean | ezezaguna | Hiriburu Jeanne | Jatsu Mendikoa | Ametzaga | Izura |
| 53 | 1794... | Etxekolatz Mari | Jean | Olhaberri Añes | Haltzaran | Arginzot | |
| 28 | 1798.11.25 | Eiherabide Mari | Pierre | Zabalet Jeanne | Aranberri | Beroki | Xurrut |
| 27 | 1799.03..01 | Carricaburu Mari | Arnaud | Urruti Catherine | Astokixar | Beroki | Xurrut |
| 74 | 1793.... | Berhan Graxiana | Arnaud | Zabalet Mari | Berhan | Beroki | Xurrut |
| 72 | 1798.02.03 | Berhuet Jeanne | Jean | Urruti Jeanne Mari | Berruet | Beroki | Xurrut |
| 58 | 1800.09 | Gillemon Jean | Martin | Haltzaran mari | Bidart | Beroki | Xurrut |
| 24 | 1798.08.03 | Xurrut Mari | Guilhaume | Ekhialde Catherine | Elizabelar | Beroki | Aroztegi/Hozta |
| 46 | 1799.08.24 | Xurrut Catherine | Guilhaume | Ekialde Catherine | Elizabelar | Beroki | Xurrut |
| 14 | 1800...... | Arhantzet Arnaud | Pierre | Intxauzpe Catherine | Etxeberri | Beroki | Xurrut |
| 65 | 1798.10.17 | Aroztegi Graxiana | Sebastien | Xurrut Jeanne | Etxebertz | Beroki | Xurrut |
| 66 | 1800.02 | Aroztegi Mari | Sebastien | Xurrut Jeanne | Etxeberz | Beroki | Xurrut |
| 50 | 1801.03.04 | Etxekolatz Arnaud | Jean | Olhaberri Añes | Haltzaran | Beroki | Xurrut |
| 35 | 1799.07.15 | Etxelet Pierre | Jean | Zabalet mari | Haranegi | Beroki | Xurrut |
| 19 | 1797.05.22 | Rekidor Dominique | Jean | Haltzaran Martina | Hargindegi | Beroki | Xurrut |
| 48 | 1798.04.25 | Arzubi Raymond | Jean | Munhulux Graxiana | Ipar | Beroki | Xurrut |
| 49 | 1820(?).20.01 | Arzubi Arnaud | Jean | Munhulux Graxiana | Ipar | Beroki | Xurrut |
| 78 | 1801.03.24 | Urruspil Jeanne | Bertrand | Elgart Mari | Iturraldia | Beroki | |
| 11 | 1797.07.18 | Urruspil Jeanne | Bertrand | Ipar Mari | Munhulux/etxetiar | Beroki | arroztegi |
| 32 | 1797.05.10 | Necol Raymond | Bertrand | Lekunberri Catherine | Necol | Beroki | Aroztegi.Hozta |
| 55 | 1799.11... | Minaberrigarai Mari | Saubat | Urruti Margueritte | Olhaberri | Beroki | Xurrut |
| 56 | 1801.10... | Minaberrigarai Saubat | Saubat | Urruti Margueritte | Olhaberri | Beroki | Xurrut |
| 17 | 1797.04.11 | Jauri Bernard | Bertrand | Eiherabide Graciane | Aintziburu | Beroki | Aroztegi |
| 2 | 1793.10.24 | Carricaburu Mari | Arnaud | Urruti Catherine | Astokixar | Beroki | Xurrut |
| 3 | 1796.02.01 | Carricaburu Jean | Arnaud | Urruti Catherine | Astokixar | Beroki | Xurrut |
| 37 | 1799.08.15 | Urrutigoiti Mari | Jean | Bidegain Mari | Bidegain | Beroki | Xurrut |
| 5 | 1801.10.28 | Haran Jean | Jean Astokixar | Haran Mari | Haran | Beroki | Xurrut |
| 36 | 1799.07.20 | Eiherabide Mari | Pierre | Zabalet Jeanne | Haranberri | Beroki | Xurrut |
| 10 | 1793.10.14 | Urruspil Elixabet | Bertrand | Ipar Mari | Munhulux/etxetiar | Beroki | Aroztegi |
| 31 | 1800.09... | Necol Mari | Bertrand | Lekunberri Catherine | Necol | Beroki | Nekol.Hozta |

| ZEN | URTEA | BATAIATUA | AITA | AMA | ETXEA | APEZA | NON |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 1792.09.25 | Martiren Mari | Jean | Aguer Mari | Poxulu/etxetiar | Beroki bikario | |
| 12 | 1792.05 | Lartigue Jeanne | Jean | Xurrut Terexa | Tafernaberri | Beroki bikario | |
| 61 | 1802… | Gillemon Agnès | Martin | Haltzaran Mari | Bidart | Borda | |
| 51 | 1804.05.01 | Iphar Jeanne | Arnaud | Urruti Mari | Elgart | Borda | Ibar/Hozta |
| 77 | 1803.03.25 | Antxol Christoffe | Arnaud | Luro Mari | Antxol | Borda erretor | |
| 38 | 1804./ | Urrutigoiti mari | Jean | Bidegain Mari | Bidegain | Borde | Hozta |
| 57 | 1805.05… | Minaberrigarai Arnaud | Saubat | Urruti Margueritte | Olhaberri | Borde | Ibar.Hozta |
| 29 | 1801.12.08 | Zabalet Pierre | Arnaud | Luro Mari | Antxol | Borde erretor | Ibar-Hozta |
| 73 | 1803.08… | Berhuet Mari | Jean | Urruti janamari | Berhuet | Borde erretor | Donapaleu |
| 67 | 1802.10… | Aroztegi Esteben | Sebastien | Xurrut Jeanne | Etxebertz | Borde erretor | Ibar-Hozta |
| 69 | 1803.08… | Larraburu Arnaud | Arnaud | Ofizialdegi Mari | Hozta | Borde erretor | Donapaleu |
| 34 | 1802.11.11 | Irigarai Graxiana | Arnaud | Urruti Jeanne | Intxauzeta/Hozta | Borde erretor | Ibar/Hozta |
| 25 | 1800.07.16 | Luro Jeanne | Jean | Artzalarrondo Mari | Luro | Borde erretor | Ibar/Hozta |
| 26 | 1802.02.09 | Luro Mari | Jean | Artzalarrondo Mari | Luro | Borde erretor | Hoztako elizan |
| 33 | 1804.03.30 | Necol Jean | Bertrand | Lekunberri Catherine | Necol | Borde erretor | Hoztako elizan |
| 59 | 1802.01… | Jauri Pïerre | Bertrand | Eiherabide Graxiana | Aintziburu | Borde/elizan | Ibar/Hozta |
| 47 | 1882(?)11.10 | Xurrut Terexa | Guilhaume | Ekialde Catherine | Elizabelar | Borde/erretor | Ibar/Hozta |
| 54 | 1802.. | Olhaberri Añes | Arnaud | Arhantzet Mari | Gainekoetxeberri | Borde/erretor | |
| 52 | 1801.07.12 | Arhantzet Jeanne | Mixel | Jeanne Zubiatebehere | Zubiatebehere | Borde/erretor | Ibat/Hozta |
| 16 | 1793.11.01 | Eiherabide Graxiana | Pierre | Zabalet Jeanne | Haranberri | Casenave/Mendit | Hoztako elizan |
| 15 | 1793.08.15 | Xurrut Dominique | François | Irolle Catherine | Xurrut | Casenave/Mendit | Hoztako elizan |
| 21 | 17…02… | Haltzaran Catherine | Arnaud | Bizkai Dominique | Donapaleun orduan | Etxevers | |
| 44 | 1813.5.9 née | Jauri Mari | Mixel | Kattalin Ondikozahar | Ondikozahar | Hiriart/erretor | Suhuskun/elizan |
| 1 | 1792.05 | Uhalde gratianne | Guilaume | Etxeberrigarai Ana | Uhalde | Idiart erretor | Hozta |
| 8 | 1792.07.18 | Urruspil Mixel | Bertrand | Ipar Mari | Buraldekoborda/etx | Iriart erretor | Hozta |
| 9 | 1792. | Burhalde mari | Jean | Artzalarrondo Jeanne | Burhalde | Iriart erretor | |
| 4 | 1792.06 | Iriart Mari | Guilhaume | Mendizket Mari | Iriart | Iriart erretor | |
| 60 | 1797… | Minaberrigarai Mari | Jean | Urruty Jeanne | Amizto | Irolle | Baratxart Sarask |
| 76 | 1796.06.30 | Intxauzpe Mari | Arnaud | Astoki Catherine | Astoki | Irolle | |
| 23 | 1797.08… | Berhan Jacques | Arnaud | Zabalet Mari | Berhan | Irolle | Baratxart/Saras |

| ZEN | URTEA | BATAIATUA | AITA | AMA | ETXEA | APEZA | NON |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 18 | 1794.04.04 | Rekidor Mari | Jean | Haltzaran Martina | Hozta | Irolle | Baratxart Sarrask |
| 71 | 1795…..... | Larralde Jeanne | Bernard | Errazarret Jeannette | Ibarla | Irolle | Baratziart/Saras |
| 22 | 1797.07.20 | Coré Pierre | Joseph | Jauregiberri Jeanne | Iturbidea | Irolle | Baratxart.Sarras |
| 30 | 1794.05.15 | Necol Jeanne | Bertrand | Lekunberri Catherine | Necol | Irolle | Ahatsa Agerria |
| 7 | 1794.03 | Martiren Mari | Jean | Aguer Mari | Poxulu/etxetiar | Irolle | Baratxart |
| 75 | 1794.02... | Xurrut Gillome | Etienne | Jauregiberri Mari | Jauregi | Irolle apeza | |
| 45 | 1885(?).05.03 | Ager Graxiana | Pierre | Zabala Catherine | Hozta | Ithurri Frantzizko | Aurrieta |
| 39 | 1802.08.03 | Ager Mari | Pierre | Zabala Catherine | Hozta | Ithurry Frantzizko | Aurrieta/erretor |
| 13 | 1794.01 | Xurrut Pierre | François | Irolle Catherine | Xurrut | Jaurixuri/ondikola | Luzaide |
| 43 | 1797/2urtetan | Arhantzet Pierre | Jean (Hozta) | Teta Mari/Aintzile | | Lartirigoin/Iholdi | Baratziart/Buzun |
| 63 | 1802.06.14 | Zapato Arnaud | Jean | Berhan, Jeanne | Hozta | Miguel erretor | Luzaide |
| 64 | 1803.10.04 | Zapato Graxiana | Jean | Berhan, Jeanne | Hozta | Miguel erretor | Luzaide |
| 20 | 1795.05... | Haltzaran Mari | Arnaud | Bizkai Dominique | Ostankoan orduan | Ostankoako erretor | |
| 62 | 1804... | Urrutigoiti Mari | Jean | Bidegain Mari | Bidegain | Salaberri | desservant Hozta |
| 68 | 1808.03.19 | Larraburu janette | Arnaud | Ager Mari Ofizialdegi | Etxeberz | Salaberri | desservant Hozta |
| 70 | 1806.05.15 | Larraburu Mari | Arnaud/errient | Mari Ofizialdegi | Hozta | Salaberri | desservant Hozta |
| 41 | | Idiart Mari | Arnauld | Mari Artzalarrondo | Idiartia | Salaberri | desserv.Hozta |
| 40 | 1804/ | Xurruta Arnaud | Jean | Aldabe Mari | Iribarneborda | Salaberri | desservant |